

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza-deialdian itxarote-zerrendan geratutakoei laguntzak emateko ebazpena, soberakinak egokitu direlako. 2018. urtea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2018ko abenduaren 14an emandako ebazpena, zeinaren bidez Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntza-deialdiaren baitan itxarote zerrendan geratu ziren enpresei laguntzak ematea ebatzi baitzuen, soberakinak zeudelako. Hauxe da ebazpenaren edukia:

“I. Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 22an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko udalerrian 2018an enpresak sortzeko laguntzak emateko udal programa arautzeko oinarriak eta deialdi publikoa (2018ko maiatzaren 25eko ALHAO, 60. zenbakia).

II. Aurkeztutako eskabideak aztertuta, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2018ko urriaren 11n ebatzi zuen deialdia. Horren arabera, E Process-Med SL enpresari 4.111,60 euroko laguntza teorikoa zegokion –diruz lagun daitezkeen atalean alegatutako inbertsioen (16.446,40 euro) ehuneko 25ari dagokiona–, baina 1.634,80 euroko laguntza eman zitzaion zuzkidura ekonomikoa agortu zelako.

III. Gerora etorritako bateraezintasun arrazoiak zirela eta, Novak Digital Solution SL enpresak borondatez uko egin zion 2018an enpresak sortzeko udal programaren bitartez jasotako 1.889,85 euroko laguntzari, eta zinegotziak onetsi egin zuen ukoa 2018ko azaroaren 28ko ebazpenaren bitartez. 2018ko abenduaren 11n itzuli egin zen kopuru hori udalak Kutxabank entitatean duen ES28 2095 0611 0810 9095 3273 kontu zenbakian.

IV. Borondatezko itzulketa dela eta aipatutako soberakina dagoenez, 2018ko abenduaren 13ko txostenean enpresen udal zerbitzuak ontzat eman du diru hori E Process-Med SLri emandako laguntza osatzeko erabiltzea, zein 2018an Gasteizen udalerrian enpresak sortzeko laguntza programa horren deialdian itxarote-zerrendan gelditu baitzen.

Egiaztatu egin da badela soberakinik (1.889,85 euro) Gasteizko udalerrian 2018an enpresak sortzeko laguntza-programako aurrekontu-zuzkiduran, 2018ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 partidaren kontura.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebatzea.

Laguntza deialdi hori onesteko erabakiaren laugarren atalean xedatutakoarekin bat, aurreikusitako epeak bukatutakoan nahikoa saldorik ez dagoelako erantzuterik ez den eskabiderik geratzen bada, deialdian soberan geratutako saldoa erabiltzeko baimena ematen da.

Horrenbestez, nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2018ko apirilaren 27ko erabakia dela medio, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak,

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren baldintzak betetzen direla eta Gasteizko udalerrian 2018an enpresak sortzeko laguntza-deialdian soberakina dagoela egiaztatuta, onespena ematea horren kontura mila zortzi ehun eta laurogeita bederatzita euro eta laurogeita bost zentimo (1.889,85 euro) itxarote zerrendan geratu zen E Process-Med SL enpresari esleitzeari.

Bigarrena. Zenbateko hori (1.889,85 euro) jasota uztea 2018ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 partidan dagoen soberakinaren kontura – Gasteizko udalerrian 2018an enpresak sortzeko laguntza-programako aurrekontu-zuzkidura–, eta laguntza hori ordaintzea.

Hirugarrena. Enpresen udal zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren arduradun.

Laugarrena. Diru-laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Interesdunei ebazpenaren berri ematea iragarkia ALHAOn argitaratuta, eta orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazteko iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, ebazpena eman duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.”

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 18an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI